

# IKASTAROAK / TALDEAK

## Ikastaroak

Euskal Etxeak hiruhilekoak diren tailer eskaintza zabala du. Tailerretan parte hartu ahal izateko **bazkide izatea ezinbestekoa da**; horretaz gainera **hiruhilekoak 25€ balio du** (ordubeteko ikastaroentzako, luzeagoak badira proportzioan igoko da matrikula):

- **Trikitixa**
- **Pandero**
- **Txalaparta**
- **Dantza**



- **Mus** (Tailer berria, baldintzak eta prezioa oraindik jarri gabe. Informazio gehiago beheko telefono edo e-postan)

Tailer batek aurrera egin dezan gutxienez 6 ikasle matrikulatu beharko dira bertan. Izena emateko azken eguna **irailaren 21a** da. Tailerrak **urriaren 1etik aurrera** hasiko dira. Ikasleak etor daitezkeen ordutegiak ikusi ondoren ezarriko dira tailerren ordutegiak. Behin matrikulatuta, gutxienerako kide kopurura iritsiko ez bagina edo etorri ezingo bazina, ordaindutako matrikula itzuliko genizuke.

## Taldeak

Gure elkarteak badu talde iraunkor bat ere, txikitatik dantzan aritu diren neska-mutilek osatutakoa. Taldeko partaide izateko ez da baldintzarik bete behar, baina bazkide egitea eskertzen da, Euskal Etxeak zein taldeak dituzten gastuei aurre egiteko:

- **Dantza taldea**

